ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2026-2027 denboraldia

(2026ko irailaren 28tik 2027ko urriaren 3ra)

46. astea (2026ko azaroaren 9tik 15era)

COVD-19aren tasak aurreko asteko balioen antzekoetan kokatzen dira. Gripearen eta bronkiolitisaren tasak oinarrizko mailan (inter epidemikoa) mantentzen dira, baina gripearen zirkulazioa handituz doa.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 318,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (340,4/100.000 aurreko astean).
- LMAn, gripe-sindromearen tasa mantendu egin da, eta COVID-19aren eta bronkiolitisarenak behera egin dute.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 47 lagin jagoleen % 72,3 baieztatu da. 9 gripe-birus eta 5 SARS-CoV-2 detektatu dira, baina ez ABSik.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 13,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,5/100.000 aurreko astean).
- LMAko bronkiolitis-tasak (< 2 urte) eta larrialdietako gripe-sindromearen tasa oinarrizko intentsitate mailan (balio inter epidemikoa) mantentzen dira. AIAren LMAko tasa, zeinak atalase-epidemikoa gurutzatu zuen 2026/39 astean, intentsitate maila baxuan kokatzen da.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 138 gripe-birus, 109 SARS-CoV-2 eta 6 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen mailako arretan

Zaintza sindromikoa

Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 318,9 kasukoa izan da (340,4/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 214,1/100.000 izan da Araban, 359,5/100.000 Bizkaian eta 303,0/100.000 Gipuzkoan.

AIAren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arreta-sarea. 2026-2027, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2838,6 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 urtekoen eta 79 urtetik gorekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1662,6 eta 344,2 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera Lehen mailako arretako sarea. 2026-2027, EAE



AIAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuen (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AIAren sintomaren bat duen *Sukarra*[1]) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 128,1 kasukoa izan da (135,9/100.000 aurreko astean).

AIArekin erlazionaturik irekitako PAAen tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2026-2027, EAE



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, aste honetan, tasek behera egin dute ESI gehienetan.

AIAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2026-2027, EAE

ESI	Tasa 46. astea	Tasa 45. astea
Arabako ESI	230,1	249,3
Barakaldo-Sestaoko ESI	315,1	340,0
Barrualde-Galdakaoko ESI	365,1	395,4
Bidasoako ESI	324,6	324,6
Bilbo-Basurtuko ESI	398,4	391,8
Debabarrenako ESI	292,0	368,5
Debagoienako ESI	231,9	315,4
Donostialdeako ESI	283,6	324,2
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	362,4	371,6
Goierri-Urola Garaiako ESI	347,4	401,0
Arabar Errioxako ESI	444,1	402,2
Tolosaldeako ESI	318,8	355,8
Uribeko ESI	287,4	275,7

[1] Informazio gehiagorako kontsultatu *AIAaren jagoletzaren metodologia*

Lehen Mailako Arretan (LMA), gripe-sindromearen tasa 100.000 biztanleko 7,3 kasuetan mantendu da (7,2/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasa (bi urtetik beherakoetan) 100.000 biztanleko 218,7 kasukoa izan da (226,3/100.000 aurreko astean) eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 4,8 kasuetara jaitsi da (6,4/100.000 aurreko astean).

Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2026-2027, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 47 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 72,3 baieztatu dira. 9 gripe-birus eta 5 SARS-CoV-2 atzeman dira, baina ez ABSik. 11 errinobirus, 6 parainfluenza birus eta 6 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAn eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2026-2027, EAE



Aste honetan, SARS-CoV-2aren positibotasun-tasa % 10,9koa izan da (% 8,2 aurreko astean), gripe-birusarena % 19,1koa (% 8,2 aurreko astean), eta ABSrena % 0,0an mantentzen da.

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2026-2027, EAE

	46. astea		45. astea		2026-2027 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
SARS-CoV-2	5	10,9	4	8,2	44	14,6
Influenza	9	19,1	4	8,2	23	7,6
ABS	0	0	0	0	0	0
Metaneumobirus	0	0	2	4,1	3	1
Parainfluenza	6	12,8	7	14,3	26	8,6
Adenobirus	0	0	2	4,1	6	2
Errinobirus	11	23,4	11	22,4	77	25,4
Urtaroko CoV	6	12,8	5	10,2	26	8,6
Enterobirus	1	2,1	4	8,2	18	5,9

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIAren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratortzen direnak. AIAL tasa 13,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,5/100.000 aurreko astean).

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2026-2027, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 79 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 79,9 kasurekin, ondoren urte batetik beherakoen eta 70-79 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 38,2 eta 23,2 kasurekin, hurrenez hurren.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2026-2027, EAE



ABSren diagnostiko-kodeekin (J12.1, J20.5 eta J21.0) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 100.000 biztanleko 0,0 kasutan mantendu da. Gripearen kodeekin (J09-J11) lotutako ospitaleratzeen tasa 1,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (0,7/100.000 aurreko astean) eta COVID-19arekin (U07.1) lotutako ospitaleratzeena 1,0 kasukoa (0,9/100.000 aurreko astean).

Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2026-2027, EAE



AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna %8,0koa izan da aste honetan (% 9,6 aurreko astean), gripe-birusarena % 12,8ra igo da (% 7,6 aurreko astean) eta ABSrena % 0,5ekoa izan da (% 1,1 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2026-2027, EAE

	46. astea		45. astea		2026-2027 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	237	8,0	230	9,6	1558	10,7
Influenza	219	12,8	197	7,6	1335	7,7
ABS	202	0,5	181	1,1	1200	0,6

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2026-2027, CAE



Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuak (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIAren zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2026/39 astean gainditu zen, gaur egun tasa atalase epidemiokoaren azpian kokatzen delarik.

AIAren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2026-2027, EAE



Gripe-sindromean, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuen arabera, tasa oinarrizko intentsitate mailan (inter epidemikoa) mantentzen da, baina goranzko joerarekin.

Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE



Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, tasa oinarrizko intentsitate mailan (inter epidemikoa) mantentzen da, baina goranzko joera argia duelarik.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2026-2027, EAE



Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan, 138 gripe-birus, 109 SARS-CoV-2 eta 6 ABS erregistratu dira aste honetan.

Aste honetan detektatutako 138 gripe-birusetatik, 84 A motakoak izan dira, A(H3) bat, 51 A(H1)pdm09 eta 2 B motakoak. 2026/40 astetik 521 detekzio erregistratu dira, 506 (% 97,1) A motakoak eta 15 (% 2,9) B motakoak. Azpitipatutako A motako 289 birusetatik, 44 (% 15,2) A(H3) eta 245 (% 84,8) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2026-2027, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago *Osasun Saileko webgunean* eta ondorengo esteka hauetan: *SiVIRA* (estatukoa), *Flu News* (Europa, gripea), *FluNet*, (Mundua, gripe), *OPS* (Amerika, gripea), *CDC* (AEB).

2026ko azaroak 18

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza